ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko apirilaren 1a, asteazkena • 39 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2026ko martxoaren 24ko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena**

— **Foru dekretuak:**

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

9/2026 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei, obra txikiak gauzatzeko programaren barruan, laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrei.

10/2026 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei, auzo harremanak sustatzeko ekimenen programaren kontura, laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrei.

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

165/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan izango dituen ordezkariak izendatzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

166/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Arabako Foru Aldundiko langileen, behin-behineko langileen eta kargu publikodunen ordainsarien ehuneko 1,5eko igoerari.

167/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari.

168/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko Artxiboko gordailuen instalazio termikoa ordezteko hornidura kontratatzeko espedienteari, prozedura ireki bidez. Oinarrizko aurrekontua 211.749,31 eurokoa da, BEZa barne, eta bost hilabeteko epea dago obra egiteko.

169/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea ondarea kudeatzeko, mantentzeko eta barne zerbitzuak eskatzeko software baten harpidetza, ezarpena (SaaS) eta mantentzea hornitzeko prozedura ireki bidezko kontratuaren espedienteari, 211.750,00 euroko oinarrizko aurrekontuarekin eta 2030eko abenduaren 31ra arteko gauzatze epearekin.

170/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Iberdrola Clientes SAU enpresari adjudikatzeari energia elektrikoz hornitzeko esparru akordioa, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 3ko 34/2026 Erabakiaren bidez onetsi baita, 2027ko abenduaren 31ra arteko gauzatze epearekin.

171/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea irabazteko xederik gabeko erakundeek enplegurako prestakuntza emateko laguntza lerroaren 2026ko deialdiari.

172/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan eta udaletan 2026ko ekitaldian egin beharreko turismo inbertsioei aurre egiteko laguntza lerroen deialdiari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

173/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea 2025eko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitorpenetan itzulketen ordainketa agindu eta gauzatzearekin loturiko izapideak bizkortzeko jarraibideei.

174/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea kreditu zabalgarriei buruzko 2025eko ekitaldiari dagozkion aurrekontu aldaketen hainbat espedienteri.

175/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko “Garraio egokitua kontratatzeko laguntza teknikoa AKK” partida, 2027. urtean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hala eskatuta.

176/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funts gehigarriz hornitzeko “Zainketen Ekosistemen Aholkularitza AKK” partida, 2027. urtean, Gizarte Politiken Sailak hala eskatuta.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

177/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea euskararen teknologia digitaletarako hizkuntza datuak sortu eta kudeatzeko Euskorpora elkarteari atxikitzeari.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

178/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea atzera egiteari Foru Gobernu Kontseiluaren 2025eko apirilaren 15eko 211/2025 Erabakiaren bidez onetsitako kontratazio prozeduran.

179/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Jundizko ontziak sailkatzeko plantaren ustiapen zerbitzua mantentzeko behar diren zenbatekoak kontsignatzea.

180/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin-behinean onestea Zadorraren ibilbide berdearen proiektua (Langraiz Oka-Trebiñuko muga), baita desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda ere.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

181/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren errepide sarearen ezaugarri fisikoen, geometrikoen, egiturazkoen eta funtzionalen inbentarioa egiteko zerbitzu kontratuaren esleipenari, Rauros Zmcom, SLU-Euroconsult Nuevas Tecnologías, SS, Drace Geocisa, SA enpresek osatutako ABEEaren alde, 445.353,13 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta obrak gauzatzeko 12 hilabeteko epearekin.

182/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Indra Sistemas SA enpresari adjudikatzeari Alavabusen C01 Durango/Vitoria-Gasteiz/Miranda emakidarako autobus barruko ekipamendu berriaren hornidura kontratua. Aurrekontua: 226.754,00 euro, BEZa barne. Gauzatze epea: zortzi hilabete.

183/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. AR-01, AR-02, AR-03 eta C-01 garraio erregularreko emakiden bidaia tarifak eguneratzea 2026ko apirilaren 1etik aurrera.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

184/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 382/2025 Erabakiaren bidez adjudikatutako kontratuaren likidazioari.

185/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako 2026ko deialdirako aurrekontu esleipena handitzeari.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

186/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea estatu gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Arabako Lurralde Historikoko lanpostu hutsak betetzeko 2024-2025eko lehiaketa bateratua ebazteari.

187/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea obra txikiak egiteko 2026ko deialdirako aurrekontu esleipena handitzeari.

188/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 716/2014 Erabakiaren bidez adjudikatutako kontratuaren likidazioari.

189/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 4ko 661/2025 Foru Dekretuaren bidez deitutako dirulaguntza lerroaren lehenengo emakidari.

190/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko Landa Etxebizitzen Foru Planerako kuadrillen araberako parte hartzeko prozesu bat egiteko laguntza teknikoko zerbitzuak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedienteari. Oinarrizko aurrekontua 250.000,00 eurokoa da, BEZa barne, eta zortzi hilabeteko epea dago proiektua gauzatzeko.

KULTURA ETA KIROL SAILA

191/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak antolatutako ekitaldietarako agertokiak, karpak eta beste elementu batzuk alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari. Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoa 145.000,00, BEZa barne. Gauzatzeko epea: urtebete.

192/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 30eko 843/2025 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa ezesteari (Esp. 01171001-2025/00254).



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.04.01 05:29:26 Z